

a  
g  
r  
i  
a

# komunikabideak euskaal herrian ireki den egoera berrian

1999.ko martxoak 13  
BILBO

MANU ROBLES-ARANGIZ



INSTITUTUA

ipar•hegoa



LAN  
IKASKETARAKO  
FUNDAZIOA

# komunikabideak euskal herrian ireki den egoera berrian

01. Euskal Herrian zabaldu den egoera berriak komunikabideetako profesionalok animatu egin gaitu amankomunean hausnarketa egitera, hain zuzen gure iharduerarako jarrera nahiz printzipioei buruz eta gure komunikabideek bete beharko luketen paperaz.

Hausnarketa gure kolektiboaren heterogeneotasunetik abiatuta egin nahi genuke, komunikabideek gaurko esparruan duten garrantzia oso handia dela uste izanik.

1999.ko martxoak 13  
BILBO

## I. ZATIA

### Sarrera

---

02. Komunikabideek funtsezko eginkizuna betetzen dute gizarte modernoek bilakaeran, beren izaeragatik eta lantzen duten lehengaia medio (irudiak eta hitzak, ideiak eta baloreak). Editorializatu, informazioa hautatu eta jendaurrean interpretazio, diskurtso, ikuspegi eta pertsonaiak jartzen dituzten aktore garrantzitsuak dira. Bestalde, komunikabideak, industria izateaz gain, artekari ideologikoak dira, zeinek gizartearen ikuspuntu politiko eta kulturalak baldintzatzen dituzten, botere-sistemaren zati izateraino.

03. Komunikabideek funtzio garrantzitsu anitz betetzen dute: gertakariak deskribatu eta interpretatzen dituzte; gizartearen ispilu dira eta iritzi publikoa sortzen dute; eztabaidatu beharreko gaien agenda moldatzen dute; aktore kolektiboak oro har identifikatu eta epaitzen dituzte; sistema politikoaren eledun legez jokatzeko dute, eta eskari sozial eta politikoak bideratu, zabaldu edo isiltzen dituzte, gizartearen parte hartzea bultzatu edo desaktibatuz. Hori guztia dela eta, joko demokratikoaren instituzio garrantzitsu bihurtu dira: eraginak banatu eta balore batzuk hobesten dituzte, eta adierazpen askatasuna indar edo muga dezakete.

04. Sistemaren kalitate demokratikoak eta komunikabide-sistemaren egiturak elkarrekiko harremanean dute funtsa. Espainiar Estatuan, egitura horrek arazo kezkarriak agertzen ditu bi mailatan: batetik, komunikazio enpresa batzuk hegemonizatutako talde pribatu eta publiko gutxi batzuek gauzatzen dute hedabideen boterea; bestetik, gizarteko sektore eta ideologia jakin batzuk, garrantzitsu izanagatik ere, komunikabide handienetan agertzeko aukera gutxi dute.

05. Komunikabideen funtzio tradizionalak are garrantzitsuagoak dira egun Euskal Herrian bizi dugunaren moduko gizarte, ekonomi, politika eta kultur aldaketa garaitan. Garai honetan bake prozesu bat hasten eta finkatzen ari dela soma daiteke, zeinak sakoneko arazo politikoak bideratu eta amaiera eman diezaiokeen bortizkeria politikozko espiralari. Gure gizarteak betidanik jakin izan du elkarriketa eta elkarbizitzaren jokabidea bizi eta gauzatzen; beraz, komunikabideek hori eredutzat hartu eta bake prozesua bultzatu beharko lukete, eragile eta moderatzaile gisa arituz.

## II. ZATIA

### Komunikabideak egungo egoera politikoan

---

06. Azken urte hauek aztertu ostean, esan daiteke Euskal Herrian hedapena duten komunikabideen jarrera nagusia ez dela positiboa izan. Euskal herritarrek aldaketak itxaropentsu, hurretik eta beren tamainean bizi dituzte, baina komunikabideek era manikeoan ideologizatzen dituzte gertakariak, euren benetako garrantzia bazter utziaz. Gainera, komunikabideek ez dituzte errespetuzko eta elkar ulertze alderako dinamika

## **komunikabideak euskal herrian ireki den egoera berrian**

sozialak bultzatzen. Komunikabideak, frontismoen logika –lehen, demokratak/biolentoak, gaur egun, demokrata konstituzionalistak/nazionalistak– onartu eta tentsioa handitzeaz gainera, gatazkei gehitzen zaien arazo bihurtu dira.

Komunikabide batzuek gehiegikeria baloratiboa erabili dute, adierazpenak eta gertakariak txikiagotu nahiz puztuaz, eta alderdi politikoen propagandazko eredu komunikatiboaren zuzeneko eledun bilakatu dira. Estereotipoak agertzea, hizkuntza konnotatiboa erabiltzea eta arazo konplexuak arinkeriak azaltzeko joera eguneroko ogia ditugu. Halaber, jarrera batzuk nahierara bultzatzen dira, beste zenbait aktiboki gutxietsi eta jazartzen diren artean, neurrigabeko informazio bidez edo datuak ezkutatu; iturri ofizialak maizegi erabiltzen dira; gertakariak eta iritziak nahastu egiten dira; irainka ez denean, azalkeriak eta gordinkeriak adierazten diren tertuliano eta zutabegileak dira nagusi; aldiz, kolaborazio positiboenak zentsuratu egiten dira; lehentasuna ematen zaio ikuskizun huts eta emozioari, eta arrazoitu eta azaldutako kontuak bazter uzten dira; ez da alde zail eta sentikorrenen berri ematen (biktimen bizitza, komisaldegi eta kartzeletan emandako tratua); gertakari jakin batzuk artifizialki handitzen dira, baliabide sentsazionalistak erabiliz (iritziz jositako titular deigarri eta alderdikoak, neurri handiko argazkiak); estatuko zenbait komunikabideetan euskal gaien inguruko informazioa mespretxuz ematen da...

Horrek guztiak polarizazio politikora darama; bake prozesua gidatu behar duen elkarrizketa oztopatzen du; lanbidearen irizpide deontologikoak zapuzten ditu; Euskal Herrian lanbide horrek duen ospe ona lohitzten du, eta bere funtzio demokratikoa hondatzen du.

07. Gizarte demokratikoan, besteak beste, komunikabideei dagokie adierazpen eskubidearen defentsa; zeregin hau neurritz administratu behar da.

Eginkizun hori hiritarren kritika arduratsupean jarri behar da noski. Bestelako zerbait dira zenbait kazetarik jaso dituen mehatxuak, inola ere onar ez ditzakegunak, kritikaren mugatik harago koakzioa adierazten baitute. Guztiz onartezinak dira, halaber, gure lana baldintzatu edo ildo editorialean eragina izateko asmoz, botere politiko edo ekonomikoek gure lanbidearengan eragin ohi dituzten presio eta jazarpenak. Mehatxu, presio eta inposizioek amaitu egin behar dute.

08. Egin egunkaria ixtearen larriak aipatu beharreko kasu bilakatzen du. Enpresa argitaratzailearen kontra zabalduko diligentzien inguruan norberak izan dezakeen iritziaz beste, egunkari hori 1998ko uztailean ixteak euskal gizartearen sektore garrantzitsu baten adierazpen eta informazio eskubideak murriztu zituen, gure ustez. Era bertsuan, gizarte baitako elkarrizketa oztopatu eta krispazioa bultzatu zen.

09. Era berean, egungo une politiko zailean profesionalen lan egoera eskasak (kazetarien %40 behin-behineko lan egoeran daude eta langabezi tasa oso altua da), menpekotasuna ziurtatu eta profesionalen jarrera laxatu du. Aski larria gertatzen da komunikabideen sektoreak lan hitzarmenik ez izatea: Eguneroko kontua dira “zabor kontratuak”, kolaboratzaileen gehiegizko erabilpena, bekadunen esplotazioa eta ABLEen zerbitzuak erabiltzea. Hori guztia dela eta, erredakzio askotan eszeptizismoa eta motibaziorik eza areagotu egiten dira. Paradoxikoki, arestian azaldutakoa komunikabideentzako ekonomi egoera bereziki onean gertatzen da, plantillak ia-ia handitu barik beren mozkinak 1992tik 1998rako epean hazi egin baitira.

10. Komunikabideek ahaleginak egin beharko lituzkete bake prozesua eta elkarrizketa sozial eta politikoa bultzatzeko; hortarako ez dute zilegi den pentsamolde ideologikoa baztertu beharrik. Komenigarria litzateke kazetaritzak une honetan bete behar duen papera denon artean aztertzea, hots, hausnarketa sakona egin beharko litzateke zehaztasunaren parametro amankomunetatik eta lanbidearen oinarritzko arau deontologikoetatik abiatuta.

Euskal kasuari moldatutako dekalogo hau komunikazioko profesionalen iritzipean jarri gura dugu. Dekalogoaren eratzeko, ondoko kode etiko, lege-marko eta nazioarteko adierazpenak erabili dira, besteak beste: 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 19. artikulua, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1966an hartu zuen azken ebazpenaren 20. artikulua, 1970eko Unescoko Batzarraren 4.301. xedapena, 1978ko Espainiako Konstituzioaren 20. artikulua, Europako Kontseiluak 1993an emandako Kazetaritza Deontologiaren Europar Kodea.

### III. ZATIA

## Dekalogoaren konpromiso gisa Komunikabideetarako jardueraren proposamena

---

11 **1**: Egia errespetatzea da komunikazioko profesionalen lehen erantzukizuna zerbitzatzen duten gizartearekiko, nahiz eta egia beti erlatiboa izan. Objektibitatea lortzeko ahalegina egin behar da. Egia lagungarri da gatazken zio politikoaren eta horren adierazpenen inguruko elkarrizketarako, baita arrazoizko irtenbide baketsuak bilatzeko ere. Informazio, ikerketa, iruzkin, kritika eta iritziak landu eta argitaratzen direnean, etika profesionala zein pertsonala eta balore demokratikoak hartu behar dira oinarritzat. Komunikabideek beren profesionalen eskubide hori errespetatu behar dute, kazetariaren lan harremanak eta gizartearekiko informazio harremanak bereiziz. Halaber, profesionalak komunikabideen baitan kritika zintzo eta adeitsua egiteko eskubidea bermatu beharra dago. Orotan, profesionalak onartu egin behar dute gizarteak beren kazetaritza lana kritikatu ahal eta behar duela.

12 **2**: Informazioaren hartzailak pertsonak, herritarrak eta gizarteak dira, eta ez entzuleria bezalako abstrakzio estatistikoak. Iritzi publikoa aberastu, razionalizatu eta errespetatzeko, gauzak bereizi egin behar dira: gertakariak eta iritziak, interpretazioak eta usteak, informazioa eta propaganda, kritika eta irainak, faktuak eta zurrumurruak, eta informazio espazioak eta publizitatea. Halaber, ikus-entzunezko tituluek eta laburpenek kazetariaren informazioarekin zintzoki bat etorri behar dute.

13 **3**: Kazetariak ez dute ezein botere publikorekin edo sektore ekonomikorekin elkar hartuko, eta ez dira haien eraginpean egongo. Bakeranzko prozesua bultzatzekotan, jarrera moderatzaileak behar dira, distentsioa, gizarte elkarrizketa eta alderdien arteko elkar ulertze egokiagoa sustatuz; komunikabideek bidezkoen eta demokratikoen irizten dieten ekimen sozial eta politikoei arreta berezia eskaini behar diete; hizkuntza oldarkor, deskalifikatzaile eta sinplistikak aldatu egin behar dira; eta botere publikoen eta gizarte eragileen jokabideak kontrolatu beharra dago, bidezko eskubide eta interesak urra ez ditzaten.

14 **4**: Arestian esandako guztiaren harira, azterketa sakonak hobesten eta testuinguruak nahiz egoerak azaltzen dituzten kazetaritza-generoak bultzatzeko ahalegina egin behar da, baita iritzi publikoari eguneroko gertakarietan kokatzeko lagungarri diren eztabaidak ere. Aniztasuna eta errespetua modu eragingarrian mamitzeko bide bat eztabaidak antolatzea da, edota komunikabidearen ikuspuntu editorialetik kanpoko aukera ideologikoei espazioak lagatzea. Hau, bestalde, ezinbestekoa da "beste"aren errealitatea eta desberdintasuna ezagutu eta aintzatesteko.

15 **5**: Informazioak bide etikoen bitartez lortu behar dira. Edozein iturritatik (ofiziala, ofiziosoa edo pribatua dela ere) bildutako informazioak kontrastatu egin behar dira,

## komunikabideak euskal herrian ireki den egoera berrian

haiei funts gabeko sinesgarritasuna eman barik, batez ere arazo korapilatsuez ari garenean. Informazioa egiaztatzea ezinezkoa bada, kazetariak zinez baloratu beharko du iturria fidatzeko modukoa ote den, eta, etikaren ikuspegitik zuzenen deritzon moduan jardungo du. Huts eginez gero, zuzenketak argitaratu beharko dira, lehenengo informazioari eman zaion garrantzi berberarekin. Halaber, iturria identifikatzea ezinbestekoa da; honek araua behar du izan, eta ez salbuespena, sinesteko moduko iturriak diskrezioa eskatu duenean edo segurtasun pertsonalaren zein beste zio berezi batzuen inguruko arazoak sortzen direnean izan ezik.

16.6. Bortizkeriaren biktima guztiek errespetu eta arreta informatibo berezia merezi dute, inor baztertu gabe; egia osoa ezagutzea bultzatu behar da, injustizia eta gehiegikerien amaiera aldarrikatuz, kalteen ordaina sustatuz, gizartean berradiskidetzea erraztuz eta, edozein kasutan, biktimen erabilpen politikoa, hots, estrategia politiko interesatuen aldeko erabilpena saihestuz.

17.7. Hiritarrek intimitatea eta irudi pertsonala izateko duten eskubidea errespetatu egin behar da. Eskubide horrek berdin balio du pertsonaia publiko nahiz hiritar anonimoentzat. Ezin da edozein filtrazio ontzat hartu. Morbo eta txutxu-mutxu maila gutxitu egin behar da, zurrumurru edo espekulazioa baino ez baitira izaten. Horrela saihestuko da eskubide pertsonalen kaltetan jokatzea.

18.8. Hedabideen eta profesionalen autonomia areagotzea eta presioen aurka egitea ez da editorializatzeko edo informazio bat sinatzeko ahalmenarekin agortzen. Kazetaritzako hainbat praktika bultzatu behar dira: kazetaritza landu eta egiaztatua adierazpen-informazioen gain jartzea; kaleko eta ikerketazko kazetaritza hobestea, mahaiko eta telefono bidezko kazetaritzaren aldean; gai batek eragindako haiei hitza ematea, informazio kabineteei baino gehiago; kazetaritza ikertzailea eta filtrazioaren fruitua bereiztea –sasiko interesengatik ez jarduteaz gain- eta gizarteko sektore guztiak animatzea, bereziki gutxietsienak, informazio- eta iritzi-prozesuetan parte har dezaten.

19.9. Hedabide publikoek pribatuak baino erantzukizun handiagoa dute eredu izateari dagokionez; hala ere, horrek ez du esan nahi enpresa pribatuak beren erantzukizunei aurre egin behar ez dietenik.

20.10. Kazetaritzako profesionalen bilerek –erredakzio kontseilu, egitura sindikal edo plataforma handietan- une honetako beren eginkizunaz hausnartzea lagunduko lukete, baita informazioaren osasunari buruzko jarraipena egiten ere. Era berean, argitaratzaile eta igorleen arteko topaguneak instituzionalizatu beharko lirarteke, botereen rol fiskalizatzaileari edo egungo prozesu politikoaren tratamendu mediatikoari buruz eztabaidatzeko. Azkenik, edukien azterketa eta jarraipenerako behatoki bat profesio-nalentzat eta gizartearentzat tresna lagungarria litzatekeela uste dugu.

### IV. ZATIA

## Ondorioa

21. Gizartea ondo informaturik egoteko modua berebiziko garrantzia ari da hartzen egun Euskal Herrian bizi dugunaren antzeko egoeretan, gatazka guztiak (sozialak, politikoak, linguistikoak eta kulturalak...) agertzen ari baitira. Egoera aldatzeko erabakiak hartu behar dira. Hedabideen erantzukizuna kontutan izanik, agiri hau bultzatzen dugunok dei egiten diegu hedabideetako profesionali prozesu itxaropentsu honetan adierazpen honen edukiak bere egin ditzaten.